HOBEKI EZAGUTU

IPARRALDEKO ORKESTRA

IPARRALDEKO ORKESTRA ORCHESTRE DU PAYS BASQUE

PAYS BASQUE euskal herria
COMMUNAUTÉ D'AGGLOMÉRATION
HIRIGUNE ELKARGOA

IPARRALDEKO ORKESTRA

Iparraldeko Orkestra 1974an sortu zen. Berrogei bat musikarik osatzen dute, eta programazioaren beharren arabera beste musikari anitz junta dakioke. Iparraldeko Orkestrako musikari gehienak Maurice Ravel Iparraldeko Kontserbatorioko irakasleak dira. Musikarien taulagaineko antolamendua orkestra sinfoniko baten ohiko antolamenduari dagokio.

ORKESTRA ZUZENDARIA

Zutik eta entzuleei bizkarrez dago orkestra zuzendaria. Hura da musikarien gidaria. Keinuen eta begiraden bidez adierazten die noiz jo eta noiz isildu. Tempoa (lasterrago edo astiroago jo), eta interpretaziorako jarraibideak (ozenago edo apalago jo) ematen dizkie ere. Orkestraburu bakoitzak bere zuzentzeko moldea du, ziriarekin ala gabe!

Orkestrak formatu ttipian jo dezake ere; orduan, "ganbera-musika taldea" dela erraten da, garaian beharrezkoa baitzen halako orkestra ttipia erregearen ganberan sartu ahal izatea. Bikoteak, hirukoteak, laukoteak edo boskoteak izan ohi dira, musikarien kopuruaren arabera. Orkestra, aldiz, beste estilo batzuetatik datozen musikari batzuen bidez aberastu daiteke (akordeoia, saxofoia...). Hala, Iparraldeko Orkestran, adibidez, Euskal Herriko instrumentu tradizionalak entzun daitezke batzuetan (txistua, ttun-ttuna, txalaparta...).

Azkenik, maiz musika tresna bat ohoratzen da, instrumentu horrek obra baten zatirik garrantzitsuena joz. Obren zati horiek, usu, jotzen zailak dira teknikoki; eta beraz, jeinu handiko "bakarlari" batzuek jotzen dituzte, hots, beren musika tresnan adituak diren musikari batzuek. Halako artistak entzunen dituzue hain segur gure denboraldian!

ESKUINEKO ESKUAK
ematen du tempoa (musikaren abiadura).

EZKERREKO ESKUAK,
"bihotzaren eskua" izenekoak, musika-sentimendua (barea, nahasia, garaipenezkoa, dantzagarria...) eta musika tresnen sarrerak adierazten ditu.

BA AL ZENEKIEN?

Mahlerren Milakoen Sinfonia 1910ean lehen aldiz eman zelarik, 170 musikari eta 850 abeslari baino gehiago zeuden taulagainean.

INSTRUMENTUAK

Hiru musika tresna familia nagusi daude:

HARI INSTRUMENTUAK

Lau soka dituzten instrumentu horiek zirika edo arku batekin jotzen dira. Garaien eta obren arabera, familia honetako beste instrumentu batzuk ere orkestrari junta dakioke, hala nola harpa (hari zimikatuak) edo pianoa (hari kolpatuak).

BA AL ZENEKIEN?

Zaldien zurdaz egiten da zirikaren edo arkuaren "xerloa", eta hariak igurzteko erabiltzen da. Erhiekin ere zimika daitezke hariak; teknika honi pizzicato deritzo.

HAIZE INSTRUMENTUAK

Familia hau bi multzotan banatzen da: zurezko eta kobrezko instrumentuak.

EUSKAL HERRIKO INSTRUMENTU TRADIZIONAL BATZUK AIPA DITZAKEZU?

(Erantzuna 10. orrialdean)

PERKUSIOAK

Hainbat musika tresna biltzen dituen familia da. Perkusioen familiako instrumentuak hiru taldetan sailkatzen dira.

LARRUZKO INSTRUMENTUAK

TEKLATUAK

OSAGARRIAK

LINEAN JOKATU

instrumentuekin.
Instrumentuen soinu-loteria

BA AL ZENEKIEN?

Instrumentuak sailkatzeko molde anitz daude. Hornbostel-Sachs (bere sortzaileen izenetik) sailkapena 1914an sortutako sailkapen-sistema da, eta munduko musika tresna guziak integratzeko ahala ematen du.

Sailkapen horrek bost familia biltzen ditu:

- Aerofonoak: aireak sortzen du soinua (adibideak: zehar flauta, txistua eta txirula).
- Menbranofonoak: mintz baten bibrazioak sortzen du soinua (adibideak: danborra eta atabala).
- Kordofonoak: hari baten edo gehiagoren bibrazioak sortzen du soinua (adibideak: gitarra eta ttun-ttuna).
- Idiofonoak: musika tresnaren materiak berak sortzen du soinua; ez dago airerik, ez mintzik, ez haririk (adibideak: kriskitinak eta txalaparta).

Geroago, bosgarren familia bat gehitu zen, gitarra elektrikoa bezalako instrumentu moderno anitz sartzeko.

- Elektrofonoak: elektrizitatea erabiltzen duten musika tresna guziak.

KOLORE GUZIETAKOAK

Kolorezta ezazu
Iparraldeko Orkestra

IPARRALDEKO
ORKESTRA ORCHESTRE
DU PAYS
BASQUE

ZURE ALDI

ELKARRI LOT ITZAZU INSTRUMENTUAREN IZENA ETA IRUDIA

Alboka •

Fagota •

Klarinetea •

Kontrabaxua •

Tronpa •

Zinbalak •

Saxofoia •

Tuba •

Txistua •

Txalaparta •

LINEAKO INSTRUMENTUEI BURUZKO GALDEKETA

LETRA-ZOPA

Azpiko letra saltsan, hitz hauek aurkitu

Ziria	Kobrezkoak	Orkestra	Tronpeta
Zurezkoak	Diapasoia	Perkusioak	Haizezkoak
Zuzendaria	Flauta	Txalaparta	Biolontxeloa
Harizkoak	Bonboa	Tronboia	

C	T	R	O	N	B	O	I	A	S	B	T
A	T	X	A	L	A	P	A	R	T	I	A
Z	U	R	E	S	K	O	A	K	D	O	I
A	X	A	B	O	N	B	O	A	A	L	K
Z	H	A	R	I	S	K	O	A	K	O	O
E	E	A	A	F	V	D	R	P	T	N	B
N	S	S	X	F	E	I	K	A	R	T	R
D	T	O	D	L	N	A	E	R	O	X	E
A	Z	I	R	I	A	P	S	T	N	E	Z
R	E	F	A	U	R	A	T	A	P	L	K
R	N	T	P	T	U	S	R	E	E	O	O
I	R	O	A	A	E	O	A	I	T	A	A
A	P	E	R	C	S	O	I	A	K	A	K
V	N	H	A	I	Z	E	K	O	A	K	A

ERRAN-GORDEAK

1

2

PROBATU ZURE EZAGUTZAK GALDEKETA LABUR HONEKIN

ZEIN DA ORKESTRA SINFONIKOAREN ETA GANBERA ORKESTRAREN ARTEKO DIFERENTZIA?

- ☐ Ez dago diferentziarik!
- ○ Musikari kopurua ttipiagoa da ganbera orkestra batean.
- △ Instrumentuen familia bakarra dago orkestra sinfonikoan.

ZER ERRAN NAHI DU PIZZICATO HITZAK?

- ☐ Pizza ttipi bat da, tomatearekin.
- ○ Hariak zimikatuz jotzea.
- △ Instrumentu batean emeki ufatzea.

ZEIN MUSIKA TRESNA EZ DIRA HAIZE INSTRUMENTUEN FAMILIAKOAK?

- ○ Klabikordioa eta triangelua.
- ☐ Tuba eta tronboia.
- △ Txistua eta trikitia.

ZER ZUZENTZEN DU ORKESTRA ZUZENDARIAK ESKUINEKO ESKUAREKIN?

- △ Jendearen txaloak.
- ☐ Iparra adierazten du.
- ○ Tempoa (abiadura).

ERANTZUNAK:
5. or. - Euskal instrumentu tradizionalak: txistua, txirula, alboka, gaita, trikiita...
9. or. - Erran-gordeak: 1: biola - 2: bateria
10. or. - Galdeketa: borobil aniz badituzu, TXALOI

PAPEREZKO TXORIEN JOKOA

Paperezko txoria moztu eta plega ezazu, eta, ondotik, jokoan ari izan zaitez Iparraldeko Orkestrarekin.

——— Moztu beharrekoa - - - - - - Plegatu beharrekoa

IPARRALDEKO ORKESTRAREN KONTZERTU BAT IKUSTERA ETORRI NAHI DUZU?

Iparraldeko Orkestrak Ipar Euskal Herri osoan jotzen du.
Eta berri ona? Kontzertu-txartelak urririk dira 22 urtetik beherakoentzat; eta aurresalmentan erosiz gero, abantailazko prezioak daude (10 €-tik goiti).
Kontzertuen data guziak ezagutu eta kontzertu-txartelak erreserbatzeko: www.OSPB.eus - @orchestrePaysBasque.Iparraldekoorkestra

IPARRALDEKO ORKESTRA ORCHESTRE DU PAYS BASQUE

PAYS BASQUE EUSKAL HERRIA
COMMUNAUTÉ D'AGGLOMÉRATION
–
HIRIGUNE ELKARGOA

Diseinu grafikoak eta marrazkiak : Stéphane Bourget

Itzultzailea : Txomin Urriza Luro